

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Laukiz



Aurkibidea

Udalerria: Laukiz

Sarrera



Nekazaritza giroko udalerria da, eta Bizkaiko lurralde historikoan dago kokatuta, Uribe Butroe eskualdean. Gaur egun udaletxea den eraikinean Euskal Herriaren kulturak duen pertsonaiarik itzaltsuena jaio zen 1905ean, Esteban Urkiaga, “Lauaxeta”, idazle eta olerkaria, hain zuzen ere. Balio erlijioso handiko gunea du, Unbeko santutegia, izan ere, hango iturriko ura sendagai gisa erabiltzen omen dute.

Honako auzo hauek ditu: Elizalde, herriaren erdigunea eta udaletxea bertan daude, Aurrekoetxe, Jose Antonio Agirre, Mentxakaeta, Mendiondo, (Unbe-Mendi urbanizazioa bertan dago). Herriko biztanle gehienak gaur egun industria eta zerbitzuetan aritzen diren arren, herritik kanpo dauden enpresetan lan egiten dutelako da. Laukizko paisaia nekazal herri batena da oraindik ere.

- **Biztanleak:** 979
- **Euskaldunak:** %54,54

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **2**
- Zintak: **3**
- Pasarteak: **0**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **0**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak

Hizlariak



Maria Kamiroaga Unibaso *Mari Iberre* (1927)

Manoli Mota Bilbao (1918-2016)



1943ko apirilaren 12an jaio zen Urdulizko Osabena baserrian. Lau hilabete inguru zituela, baserria erre eta familiarteko arazo batzuk zirela medio, aitaren jaiotetxea izan zen Kurtimintu errotara bizitzera joan ziren aita, ama eta bera. Errota Laukizko Mendiondo auzoan dago eta gaur egun funtzionamenduan ez dagoen arren, bertan bizitza guztia igaro zuela kontatu zigun Manolik. 18 neba-arrebatatik zaharrena izan zen eta nagusiena izanda, asko lagundu behar izan zuen errotako lanetan. Gaztetan, lorezalea zen eta etxean laguntzeaz gain, bere afizioa ofizio bihurtzea erabaki zuen: lore-saltzaile moduan plazaz plaza loreak saltzen joaten zeneko kontu asko kontatu zizkigun. Ezkondu ostean, senarrarekin batera Getxora bizitzen joan zen eta bertan bi seme-alaba izan zituen. Bere ahizpa [Josefina](#) ere elkarrizketatu genuen, baina hau Getxon bizi izan da umea zenetik.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-03-30

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com